

Ur zikinen hoditeria eta hilerria, aurtengo lanen artean

Albizturko Udalak 441.420 euroko aurrekontua du 2021erako; ur zikinak bideratzeko sareko lehen lanei ekingo diete, eta gazteei bideratutako etxebizitzetan bitartekari lanak egingo ditu //2

Santikutz klasikoa irabazi du Unai Iribar ibartarrak

Espainiako Kopako proba bat lehen aldiz irabazi du txirrindulariak; «azken aldian pedal kolpe ona hartua dut, eta horrekin batera emaitzak iristen ari dira», esan du //7

«Operazio honek presoan parte hartzea zapuztu nahi zuen»

JULEN ZELARAIN
13/13 AUZIA

Uztailaren 12an abiatuko duten 13/13 auzian epaituko dute; denera 77 urteko espetxe zigorra eskatu dute zortzi auzipetuentzat //4

Targazki elkarteak argazki lehiaketa antolatu du

Urtero egiten du lehiaketa Tolosako elkarteak, eta aurtengo gai askeko irudiekin parte hartu ahalko dute gaztetxoek, nahiz helduek //3



«Koreografoekin lanean edo sortzaile moduan ikusten dut nire burua»

AIMAR ODRIUZOLA DANTZARIA

Txikitatik hasi zen Ibarako Alurr dantza taldearekin dantza ikasten, eta txapelketa ugari lortu ditu; egun, dantza garaikideko formazio profesionala ari da jasotzen Madrilan, eta berriki Ikearen iragarki batean hartu du parte //6

‘Kea’ izeneko bigarren diskoa kaleratu du Adi! musika talde tolosarrak, desegin eta egitura berri bati heldu aurretik; «zuzenekoetan forma hartu duten kantuen testigantza zintzoa da»

Ke bilakatutako suaren errautsak

Josu Artutxa Dorronsoro

Kalean da Adi! musika talde tolosarraren estudioko bigarren diskoa: *Kea*. Azken bi urteetan sortu eta borobildutako kantuak bildu eta Beasaingo Pottoko estudioan grabatu dituzte, Fredi Pelaezen gidaritzapean. «Oso pozik» dau-de emaitzarekin, eta zaleek «guk adina gozatzea» espero dute. «Zabaldutako *Kea*, zentzurik osasungarrienean», esan dute.

2016an sortu zuten taldea, Jon Urbizu *Turbin* saxofoi jotzaile eta Antton Telleria bateria jotzaile tolosarrek eta Mariano Hurtado baxu jotzaile donostiarrak. Azken honek, baina, lehen diskoa kaleratu ondoren utzi zuen taldea, eta Joanes Ederri zarautzarrak hartu zuen bere lekua.

Denetik egitea gustuko duten arren, estilo bat aukeratzekotan, jazz rockarekin lotu izan dute euren musika. Euren lana definitzeko, ordea, gogokoago dute Karlos Osinaga *Txapek* behin esandakoa: «Kea dario zuen musikari». Hain justu, definizio hartan du jatorria diskoaren izenak.

KANTUAK, BESTE MAILA BATERA

Musika instrumentala egin izan dute orain arte, letrarik gabea, eta bide horri jarraituz eratu dute zazpi kantuz osatutako lana. «Hiruron artean entsegu lokalean sortu eta zuzeneko emanaldietan forma hartu duten kantuen testigantza zintzo bat gordetzea zen helburua», azaldu du *Turbine*ek.

Lehen bost kantuak saxofoi baritonoarekin grabatu ditu Ur-



Goian, Adi! taldeko kideak; behean, euren azken lana: 'Kea'. ATARIA / JOSU ARTUTXA

bizuk; azken biak, berriz, saxofoi sopranoarekin. Fredi Pelaez musikariak, bestalde, nahasketa eta masterizazio lanak egin ditu; horrez gain, kolaboratzaile modura ere aritu da. «Aitortu beharra daukagu, beste maila batera eramantituela gure kantuak, soinuen trataeratik eta Rhodes pianoarekin diskoko lau kantu janzteagatik. Bere melodiak abesti bakarrean sartzea zen asmoa, baina jotzen hasi zenean, ia disko osoa gurekin graba zezan

eskatu genion», nabarmendu dute taldekideek.

IZAERA GOGORRAGOA

Erretzen ari den material batean du jatorria keak. Batzuetan, baina, errauts modura geratzen da ke bilakatzen ez den materiala. Paradoxikoki, gutxitan gertatzen bada ere, diskoa aurkeztu berri-tan heldu da taldearen desegitea. Beraz, behin piztutako suak, kea sortzea lortu badu ere, errautsak utzi ditu bidean. «Joanesek

'KEA' DISKOA

'Atomo'. Funk estilokoa. Hasieran nahiko lasaia, bortitza goa amaieran.

'Txortan'. Kantu lasaia. «Txortaldi bateko atmosfera edo giroa gogorazti dezake melodiak».

'Hiru'. Erritmo aldaketa ugarikoa.

'Low'. Lou Reed musikariaren oinarrituta, bere akordeen ukituak sartu ditu baxu jotzaileak. «Ingeleseztaxua esan nahi du low hitzak, eta hor-tik dator Joanesen protagonismoa».

'Oasia'. Zuzenean inoiz jo gabea, diskoko nobedadea. «Afrikar errit-moa du, eta entzun dutenek kantu erakargarriena dela esan dute».

'Axuri'. Axuribeltza abesti herri-koiaren moldaketa.

'Errapa'. Egiturari dagokionez, jazz estilokoa. «Nahiko tristea da, akorde menorrekin osatua, baina diskoa osatzeko, oso aproposa».

eta Anttonek taldea uztea erabaki dute, esku artean dituzten bes-telako proiektu eta asmoak tarte-ko», azaldu du *Turbine*ek.

Taldekideek esan dutenez, «penatuta, baina orain arte egin-dakoa ondo gordeta geratuko dela jakiteak ematen duen lasai-tasunarekin» daude. Izan ere, bost urteotan, buruan zituzten helburuak bete dituztela aitortu du Urbizuk. «Kontzertuak eskai-ni ditugu, bi disko kaleratu ditu-gu, eta beraz, norabide propio bat egitea lortu dugu».

Errautsetatik sua piztea ezinezkoa bada ere, izaera berria izango duen taldea osatu nahi du Urbizuk, beste bi musikarirekin batera. Oraingoaz, beraz, Adi! taldea ez da desagertuko. «Orain arteko ibilbideari amaiera eman eta berri bati ekingo diogu. Taldeak ez du betiko estilo bera izango, erabat ezberdina izango da. Hori nahi dugu, eta ilusioz gainezka gaude. Baliteke izaera gogorragoko taldea izatea, musikarion ezaugarriengatik; entseu ahala jakingo dugu hori».

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Garbiketa lanak. Tolosan, garbiketaren esperientzia duen mutil baten bila gabilta, astelehenetik ostiralera, lanaldi osorako. Gidabaimena izatea ezinbesteko baldintza da. Interesatuek deitu 943 670 626 zenbakira.

Belako eta Tenpora taldeak, MIN sarietako finalerdietan

Zaleen botoei esker lortu dute aurrera egitea; Sin Mala Intencion taldeak ere hautagaitza bat baino gehiago zituen

Erredakzioa

2021eko Espainiako musika independentearen MIN sariak ekainaren 16an banatuko dituzte, Burgosen. Musika taldeek euren hautagaitza aurkezteko aukera izan zuten, eta atzo eman zuten herriarren botoei esker finalerdietara sailkatu diren hautagaien zerrenda; azken fasean, epaimahaiak erabakiko ditu saridunak. Hautagaien artean euskal talde ugari daude, eta tartetan, baita eskualdekoak ere, Tenpora eta Belako kasu.

Juantxo Zeberio, Hasier Oleagak, Itsaso Etxebestek, Beñat Barandiaranek eta Elene Arandiak osatutako Tolosako Tenpora taldeak *Berriro asma nazazu* hirugarren diskoa aurkeztu zuen iaz. Bada, hainbat kategoriatan zegoen hautagai moduan: artista onena, album onena, pop album onena, ekoizpen musikala onena eta euskarazko album onena. Azken honetan soilik lortu du aurrera egitea.

Lander Zalakain bateria jotzaile tolosarra taldekide den Belako ere hautagaien artean dago. Pasa den urtean kaleratu zuten *Plastic drama* diskoa euren laugarren lana da. Artista onena, abesti onena *Marinela 2017* abestiagatik, album onena, rock album onena, musika ekoizpen onena, bideo klip onena *Sirene* abestiaren bideo klipagatik eta diseinu grafiko onena ziren euren hautagaitzak. Bada, azken horretan izan ezik, beste guztietan lortu dute finalerdietara sailkatzea.

Gorka Lizaso billabonatarra buru duen Sin Mala Intencion taldeak, bestalde, pasa den urtean kaleratu zuen *Cuando llueve demasiado* bigarren diskoa. Artista onena, *Punto y seguido* abestiarekin urteko abesti onena, album onena, rock album onena, musika ekoizpen onena, diseinu grafiko onena eta *Fuimos un volcan* abestiaren bideo klipagatik bideo klip onena ziren hautagaitza aurkeztu zuten kategoriak, baina bakar batean ere ez dute aurrera egitea lortu.

TOLOSALDEPEDIAKO LANTEGIA

Eguna: Maiatzak 6

Ordua: 17:00-19:00

Lekua: Tolosako Kultur Etxea

Izena eman:



TOLOSALDEPEDIA



EZAGUTZA ELKARREKIN ELKARLENEAN ERAIKITZEN

Zaintzari lotutako hilabetea, Lizartzan

Erredakzioa Lizartza

Maiatzeko asteburuetarako hainbat hitzordu prestatu dituzte Lizartzako Udalak eta Kalamatrike taldeak. Larunbat honetan *Zein estrategia psikologiko ditugu COVID19aren aurrean?* hitzaldia eskainiko dute Alaitz Aizpuru eta Emeren Gelbentzu psikologoek, 12:00etan, udal aretoan, doan.

Maiatzaren 15ean, berriz, oinarriko lehen sorospenei buruzko hitzaldia egongo da, 11:00etatik 13:00etara, kulturgunean. Bost euro ordaindu beharko dira. Eta maiatzaren 22an eta 29an sendabelarren erabilpen ezberdinen inguruko tailerra izango da. 16 urtetik aurrerakoek hartu ahal izango dute parte eta saioak kulturgunean izango dira. 20 euro ordaindu beharko dira. Ekitaldietan parte hartzeko, aurrez ize-na eman beharko da: goizez udal-etxean (673 905 685) eta arratsalde-z liburutegian (943 69 76 56).

21

POSITIBO BERRI

Osasun sailak esan duenez, 10.929 test egin zituzten herenegun, eta 670 (% 6,1) positiboak izan ziren. Gipuzkoan, 236 atze-man zituzten, eta 21 Tolosaldean: Tolosan 10, Iruran 3, Astearsun 2 eta Anoetan, Berastegin, Elduainen, Ibarra, Amasa-Villabonan eta Zizurkilan bana. 5.000 biztanletik gorako eskualdeko herrien kasuan, Amasa-Villabonan (760) eta Tolosan (675) gorrian jarraitzen dute.

Tolosa Herria argazki lehiaketa abiarazi du, aurten ere, Targazkik

Tolosako elkarteak antolatzen du, urtero, eta ekainaren 20ra bitarte bidali daitezke gai askeko irudiak; argazkilari onenek Argizaiola lehiaketan parte hartzeko gonbidapena jasoko dute

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Targazki elkarteak urtero antolatzen du Tolosa Herria lehiaketa, udalaren eta Tolargiren babesarekin. Euskal Herria mailan egin ohi den Argizaiola lehiaketara sailkatzeko baliagarria izaten da, eta aurtengo edizioa ere martxan da dagoeneko. «Herritarrak argazkiak egitera animatu nahi ditugu, argazkilari profesionalak nahiz hasiberriak», diote elkartetik.

Bi kategoria izango ditu lehiaketak: maila nagusian, 16 urtetik gorakoek parte hartu ahaliko dute, eta gazteen kategorian, 8 eta 16 urte bitartekoek. Antolatzailerik esan dutenez, gai askea izango da aurtengoa, bai irudiaren adierazpenari dagokionez, baita teknika arloari begira ere.

EPEAK ETA SARIAK

Lehiaketan internet bidez hartu ahaliko da parte, *targazki.fotogenius.es* webgunean, eta lehiaketaren inguruko informazio gehiagorako *www.targazki.com* webgunera jo daiteke, edo *targazki@gmail.com* helbidera idatzi. Ekainaren 20ra arteko epea zabaldu dute argazkiak bidaltzeko. Epaimahaiak ekainaren 27an emango du jakitera irabazleen zerrenda, eta uztailaren 10ean egingo da sari banaketa ekital-



2019. urtean Kasino elkarteak jarri zuen erakusketa Targazkik. IRATI SAIZAR

dia, 12:00etan hasita, Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokoraren kanpoaldean. «Argazkilaritzan ospe handia duten zenbait argazkilari esanguratsuk osatuko dute epaimahaia», zehaztu dute Targazkitik.

Maila bakoitzean, sari ezberdinak egongo dira argazkilari onentzat. Nagusien mailan, 300 euro eta urrezko domina irabazlearentzat, 200 euro eta zilarrezko domina bigarren sailkatuentzat, eta 100 euro eta brontzezko domina hirugarren sailkatuentzat. Tolosako argazkilari onenek ere sariak izango dituzte. Lehenak, 200 euro jasoko ditu, eta bigarren eta hiru-

garren sailkatuek, 100na euro. Hirurentzat, gainera, dominak egongo dira.

Gazteen mailari dagokionez, lehen sailkatuak 100 euroko saria jasoko du, argazki materialean; horrez gain, urrezko domina ere jasoko du. Bigarren eta hirugarren sailkatuek, zilarrezko eta brontzezko dominak jasoko dituzte, hurrenez hurren. Gainera, bi kategorietan lehen hiru postuetan sailkatzen direnak, Argizaiola lehiaketan parte hartzeko gonbidapena jasoko dute.

Sari banaketa ekitaldiaren ondoren, lanik onenekin erakusketak egingo dute Artxibo Orokoraren kanpoaldean.

Sormenetik Gurera ekimenaren lehen saioan, Antton Telleria

Errebote plazan izango da larunbatean, 11:30ean; Nagore Arin kazetaria eta Malkar aisialdi taldeko gazteekin izango da

Erredakzioa Amasa-Villabona

Galtzaundi Euskara Taldeak sustatuta Sormenetik Gurera izeneko egitasmoa jarri da martxan. Orain arte, Tolosako Azokaren testuinguruan antolatzen ziren Sormenetik saioak, Euskal Herriko artistak eta sortzaileak elkarriketatuz. Orain, egitasmoaren aldaera landu du Galtzaundik, eta eskualdeko nerabeekin batera, nerabeentzat bideratutako saioak antolatuko dira. Lehenengo hitzordua Villabonan izango da, larunbat honetan, eta Antton Telleria komunikatzaile, kazetari eta umoregile tolosarra izango da elkarriketatua, 11:30etik aurrera, Errebote plazan.

Sormenetik Gurera-ren Villabonako saioa Malkar aisialdi taldearekin elkarlanean antolatu dute. Gainera, Malkarreko gazte txoak eta Nagore Arin kazetari billabonatarra izango dira Telleria elkarriketatuko dutenak. Elkarriketara «arin eta fresko» horretan, galdera biografikoak, gaur egungo jardunari lotuak, galdera deserosoak eta *challenge* dibertigarri bat ere egingo dute. Malkar taldeko kideek hartu dituzte ekitaldia osatzeko ardurak, hala nola, elkarriketara antolatu, beharrezko materialak zerrendatu eta saioari forma ematea, eta Villabonako Udalaren laguntzari esker antolatu dute.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



J.M.

«Epaiketa traba izugarria da, elementu distortsionatzailea»

JULEN ZELARAIN ERRASTI 13/13 SUMARIOAN AUZIPETUA

Uztailaren 12an abiatuko duten auzian epaituko dute billabonatarra; aurretik ere, Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren eta Askatasunaren aurkako auzian epaitu eta hamar urteko espetxe zigorra ezarri zioten

Jon Miranda Amasa-Villabona

Zigorra beteta 2015ean atera zen espetxetik Julen Zelarain Errasti (Amasa-Villabona, 1967), 2008an ezarri zioten hamar urteko kondena bete ondoren. Orain 11 urteko zigor eskaera egin dute bere kontra, 13/13 auzian.

Nola auzipetu zaituzte sumario honetan?

Auzi honen abiapuntua 2010eko apirilean dago. Guardia Zibila eta CNik elkarrekin polizia operazioa burutu zuten. Presoen inguruan eta defentsan aritzen diren abokatu eta mugimenduaren aurkako operazioa izan zen. Garai horretan, espetxean nongoen ni eta inongo momentutan ez nuen akusaziorik jaso, eta honenbestez, ez ninduten deklaratzera deitu. Nire harri durarako, 2014an, li-

bre geratzeko sei hilabete falta zitzaizkidalda, notifikazio bat jaso nuen esanez Madrilen auzipetze auto bat jaso behar nuela. Egia esan, harrigarria da egoera; 'Dena ETA da' doktrinari jarraituz, erakunde armatuko kide izatea egotzita zigorra betetzen ari nintzela, berriro ETako kide izateaz akusatu nahi ninduten. Ni ez naiz legezizona, baina ez zait oso zentzuzkoa iruditzen egoera.

Zeintzuk dira, zehazki, egozten dizkizueten delituak?

ETako kide gisa, konkretuki, esaten dute presoak kontrolpean geneuzkala. 2008ko nire zigor autoa irakurriz gero, ia gauza berbera esaten du oraingo akusazioak.

2010ean, sumarioan oinarrian dagoen polizia operazioa eman zenean, zein zen testuinguru politikoa Euskal Herrian?

Hamaika urte beranduago errazagoa da ikustea ezker abertzale osoa zer nolako saiakera egiten ari zen une hartan. Agertoki politikoa goitik behera aldatzeko erabakimen irmoa geneukan eta eragile ezberdinen parte hartzea eta ekarpena ezinbestekotzat ikusten genituen. Urte hartan izan zen Aieteko konferentzia eta hurrengo urtean adierazi zuen ETAk bere jardun armatua behin betiko uzten zuela. Testuinguru horretan Bateragune operazioa ere gairitsu horretan izan zen. Egokitzapen eta eztabaida hori zango-trabatzea zuten helburu garai hartan. Berebiziko garrantzia zuen bake bidean presoek zuten iritzia eta egin zezaketen ekarpena. Operazio honek, eragile bezala presoan parte hartze hori zapuztu nahi zuen.

Asmatu dute estrategia horretan?

Perspektibaz aztertuz gero, denborak arrazoia eman digu, agerian geratu da premia zegoela agertokia aldatzeko. Orube demokratiko batekin, bortizkeriaren adierazpide guztiak desagertuta, herritar guztien oinarritzko eskubideak eta modu parekidean proiektu politikoa guztiak barnebilduko zituen agertokia eraikitzeke apustua egin genuen. Ezker

abertzaleak bere eskura zituen baliabide guztiak jarri zituen horren alde. Egia da 11 urte geroago aurrera pauso batzuk eman direla baina oraindik osagai asko falta dira. Auzi honek islatzen du hutsune hori. Epaiketa traba izugarria da, elementu distortsionatzailea eta aurrera egiteko zailtasun izugarriak sortzen ditu.

Espainiako Auzitegi Nazionalan epaiketa justu eta inpartzial bat izan ahalko duzue?

Ez, inondik inora. Ez guk, ezta gure aurretik pasa direnek ere. Ontzat ematen badira inkomunikatuta eta torturapean egiten diren deklarazio auto-inkulpatorioak, ez dago bermerik. Ikerketa CNik edo Guardia Zibilak egiten duenean, ez dago inorentzako bermerik. Auzi hau estatuaren estrategia errepresiboak aplikatu dituen auzitegi batetik badator, agerikoa da berme falta. Komunikabideak itxi ditu Auzitegi Nazionalak, alderdiak ilegalizatu, herri mugimenduen aurka jo...

Prest zaudete fiskaltzarekin akordio bat egiteko?

Akordiorako prest gaude. Auzipetuok pentsatzen dugu egoera errepresiboak desagertzen joan behar direla Euskal Herriko agertoki politikotik. Auzi hau, euren strategi horren barruan kokatzen dugunez, traba bezala ikusten dugu. Hortaz, traba hori desagertzeko fiskaltzarekin akordio batera iristea lagungarria izango bada, ez dugu inolako problemarik horretaz aritzeko. Borondatea badugu. Ez dakiguna da haiek izango ote duten, ez baititugu ikusten sintonia horretan.

Ez da kasualitatea orain gure aurka zabaldu duten auzia. Ikusi besterik ez dago Bateragune auzia berriro mahai gainean jarri izana, edo euskal presoek hirugarren gradua emateko erabakiei sistematikoki helegiteak jartzea, edo presoen ongietorriekin egiten ari direna. Itxura txarra hartzen diogu egoerari. Badirudi botere judizialaren barruan badagoela sektore bat egoera hau guztia oztopatzeko disposizio osoa duena.

Zein zigor eskaera egin dituzte zuentzat?

Orotara 77 urteko espetxe zigorrak. Zigor eskaerak ezberdinak dira zortzi auzipetuen kasuan. Gutxieneko zigorra 7 urtekoa da eta gehienekoa 19 urtekoa.

Zure kasuan, 11 urtekoa.

Bai. Kuriosoa da. Dagoeneko nirek epaitutako kausa beharko luke izan, baina erakunde armatuko kide izateagatik 10 urte eta berretortzeagatik beste urtebeteko espetxe zigorra eskatzen dute niretzat. Adarra jotzen ariko balitzaitkit bezala da.

Nola egiten diozue aurre auzipetuek epaiketari?

Pertsonalki ez da erraza horrelako auzi bati aurre egin behar izatea berriro ere. Auzipetu gehienok ditugu seme-alabak, bikotekideak, guraso adinduak... Horrelako eskaera batek kezka sortzen du. Kudeatu beharreko lehenengo gauza hori da. Bestalde guk geure konbikzioei eusten diegu. Auzipetu gehienok bizitza osoa eman dugu borrokan herri honen eskubideak bermatu daitezen. Animoak ematen dizkiogu elkarri. Jarra horrek laguntzen gaitu eta indarrak ematen dizkigu aurrera jarraitzeko.

Zer nolako babes jaso duzue orain arte?

Herri xumeak, beti bezala, elkartasuna eta laguntza eskaini dizkigu. Babes handia sentitu dugu. Orain eragile politikotik, sindikaltatik eta sozialetatik auziari buruz hitz egiteko interlokuzio bat abiatuko dugu. Alde horretatik ezkorragoa naiz, egia esatea nahi baduzu. Eraso bortitza da, ez bakarrik zentzu pertsonalean. Ikusiko dugu eragile horiek tamainako erantzuna emateko prest dauden; edo lortzen dugu estatuaren eskuhartzea ekiditea, edo bestela, egindako apustua zapuztu daiteke eta herri honetan bizi dugun egoera zaildu.

Auzia salatzeke mobilizatorik antolatuko al duzue auzipetuok?

Hiru lan ildo zehaztu ditugu. Esan bezala saiaturako gara eragile sozial, sindikal eta politikoekin biltzen, auziaren inguruko gure irakurketa konpartitzeko eta elkarlanerako aukera dagoen ikusteko; Herrietan egin daitekeen lan ildo da bigarrena, auzipetuok bizi garen herrietan egin daitezkeen mobilizazioak dauzkagu buruan; Eta amaitzeko, bi mobilizazio erreferente edo erraldoi planteatu ditugu epaiketa hasi baino bi egun lehenago, uztailaren 10ean, bata Bilbon eta bestea Donostian.

Uztailaren 12an hasiko da epaiketa. Zein aldarterekin egingo diozue aurre?

Nahiz eta badagoen elementu pertsonal bat guzti honetan eta ondorioak guk pairatuko ditugun, guk gogoeta harago eraman nahi dugu. Baldintzak sortu behar direla eta garai bateko errezetak ez dutela balio uste badugu, denon erantzukizuna beharrezkoa da. Konponbidea ez da zerutikeroriko, hori eraikitzeke denok gure aldetik jarri beharko dugu. Hemendik, kalean eta libre ez bada, beste lekuren batetik, baina guk ahalegin horretan jarraituko dugu.

Ur zikina eta garbia bereiziko dituen sarea egiten hasiko dira

441.420 euroko aurrekontua du Albizturko Udalak, eta esku artean proiektu ezberdinak dituzte; aurreikusi gabe izan arren, ur zikinak bideratzeko sareko lehen lanei ekingo die

Eneritz Maiz Etxarri Albiztur

441.420 euroko aurrekontua onartu du Albizturko Udalak 2021 urterako. Hasiera batean aurtengorako ur zikinen sarea-
ren lanak aurreikusi ez bazituzten ere, aurtun hasiko dira lehen zatiarekin. Urteetako lana izango dute aurretik, eta zatika osatu beharko dute. «Sare osoa egitea asko luzatuko da, eta dena batera egiteko gaitasunik ez dugu», dio Iñaki Orbegozo alkateak.

Udal guztien moduan, Foru Funtsetik diru gutxiago jaso dute. Hala ere, Albizturko Udala «osasuntsu» dago diru aldetik, eta gerakinean dirua baduela aitortu du Oihan Ostolaza idazkariak. Aurtun aurrekontu defizitarioak onartzeko baimena zutela kontatu du, baina Albizturko Udalak defizitik gabeko aurrekontua onartzea erabaki du. «Herrian beharrak badaude, gastatuko da», adierazi dute.

Iazkoari begiratu diote hastera, eta iaz, gastatu gabe utzitako partidetak bat inbertsioena izan zuten. Urtero egiten duten errepide konponketa bat izan zen eta aurtun baliatuko dute. Bestea, hilerriko konponketak dira. Hilerrian lan batzuekin ziztutela aurreratu dute, baina egin beharreko proiektu nagusia ez zela egin pandemia tarteko.

Idazkariak aurrekontuaren ia %85 herriak «funtzionatzeko» behar dituen gastuetara bideratzen dela azaldu du, eta %10-15 inbertsioetarako geratzen dela.

Aurtengo inbertsioetan sartuta lehena hilerrikoa izan da. Dagoeneko ez zuten horma hilobirik libre, eta horietako batzuk libratzea izan zen egin zuten lanetako bat. Bigarren fasean, kolunbarioak jarri nahi dituzte: «Obra zibil bat egin nahi da, eta hilerria pixka bat gehiago txukundu. Obra nahiko serioa da egin nahi dena». 24.805 euro aurreikusi dituzte.

Albizturtik Urkizura doan bideko errepide zati bat ere konpondu nahi dute, baina horretarako diru laguntza eskatuko dute, eta diru laguntza jasota bi-



Ur zikinen hoditeria sarea egin beharko du datozen urteetan udalak, eta aurtun zati bat egingo dute. ENERITZ MAIZ

dea berritzea espero dute. Kasu honetan, 15.000 euro jarri dituzte konponketa lan horietarako. Hilerriako ere diru laguntza lortzen ahaleginduko dira, baina «zail» ikusten dute laguntzarik jasotzea, eta lan hauek gauzatu ahal izateko, ur hoditeriarako diru laguntza lortzea beharrezkoa izango dute.

HERRIKO URA

Albizturko Udala Gipuzkoako Urak-en sartu gabeko herri gutxi horietako bat da. Herrian ur asko, eta bere garaian, udalak ez sartzeari erabaki zuen. Gaur egun, udal langileak kudeatzen du herriko ura, baina ura hornitzeak ez du ekarri arazoa, baizik eta ur zikinen kudeaketa guztia egin beharrak. Orain, ur zikinak eta garbiak erreka berean doazela azaldu dute. «Askok gogortu da arautegia eta zentzuzkoa da, eta hori zuzendu egin behar dugula exijitu digute», dio Ostolazak.

«Ur garbiaren kudeaketa bera ere gero eta zailagoa da», dio idazkariak. «Herriko langilearentzat lan asko da, eta egin beharreko lana ere gero eta zorro-

tzagoa da». Eusko Jaurlaritzako Ura Ur Agentziaz iritsi zitzaizen errekerimendua, eta «bai ala bai» aldatu beharra dagoela Albizturren duten egoera eskatu zieten.

Udalari dagokio herriko ur zikinak bereizi eta bideratzea. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitz egin dute egoeraz, eta Gipuzkoako Urak-en sartzeko erabakia ere bideratua dute. «Hizketan hasita gaude dagoeneko, eta momentu honetan beraien zain gaude», esan du Iñaki Orbegozo alkateak. Urrian sartzeari espero dute.

Gipuzkoako Urak eta aldundia Albiztur eta Tolosa arteko bideaz arduratuko dira. «Horra iristeko egin behar diren adar ezberdinak guri egokituko zaizkigu egitea», azaldu dute udaletik.

Albizturren araztegia egiteak ez duela zentzurik, eta Tolosara bideratuko dituzte ur zikinak. Hori bai, proiektu handia izango da Albiztur herriarentzat eta hainbat urtetan egingo dituzte lanak, baina aldundia lan horiekin hasten denerako, herriguneko sarea prest izan beharko dute Albizturren.

Aurtun hasiko dituzte lanak herriguneari etxe berri bat egiten hasi direla aprobetxatuz, eta gune horri dagokion zatia presatuko dute. Udalaren asmoa, honelako mugimendu bat dagoen bakoitzean hoditeria lanak aurreratzeko joatea izango dela azpimarratu dute. Eta mugimendurik egon gabe ere, leku zehatzetan obrak egiten joan beharko dutela diote.

Hasiera batean aurrekontuan aurreikusi gabeko obrak direla esan dute ur zikinen hoditeriako lanak, baina etxe berri bat egiten hasita, orain egin beharreko zatikusi dute. Gerakinean duten dirutik 100.000 euro bideratuko dituzte obra horietara. Hala ere, Leader programara diru laguntza eskatu dute obrara bideratzeko, eta jasotzea espero dute.

UDALA BITARTEKARI

Herriko beharrei tiratuz, gazteei begira egin nahi diren etxebizitzak lantzen ari da Albizturko Udala. «Ez da udal aurrekontuaren barrukoa, baina, ahal den neurrian hemendik lagundu beharrekoa dela ikusten dugu»,

ZENBAKITAN

SARRERAK	EUROAK
Zuzeneko zergak	85.700
Zeharkako zergak	20.000
Tasak eta bestelako zergak	50.150
Transferentzia arruntak	284.3206
Ondare sarrerak	1.250

GASTUAK	EUROAK
Pertsonal gastuak	193.000
Ondasun arrunt eta zerbitzuetan	137.510
Finantza gastuak	1.000
Transferentzia arruntak	66.105
Inbertsio errealak	30.805
Finantza pasiboak	13.000

GUZTIRA	441.420
----------------	---------

gaineratu du Orbegozok. Udalak bitartekari lanak egiten lagunduko du baserri jabe eta gazteen artean, eta lau bat etxebizitza egitea izango litzateke helburua. Orain etxebizitza zein izango litzatekeen aukeratze lanetan ari dira.

Era berean, pandemia tarteko, nabarmendu dute baserri zahar asko saldu direla azken urtean.

FESTA NAHI

Albizturko Udalak urtero moduan aurreikusi du diru kopuru bat festak antolatu ahal izateko, baina alkateak garbi utzi du ez dela ohiko festarik izango. Ama Birjinaren egunean herrikoentzat zerbait egiteko intentzioa badutela aurreratu badu ere, egoera zein den ikusi beharko dutela azaldu du. Hala ere, festak abuztu erdian izanda «itxaropentsu» daude, eta herritarrei begira zerbait egiteko «beharra» badagoela adierazi du.

Horrez gain, herriko ikasleei begira ikasturtea amaitu eta udaleku irekiak egingo dituzte hiru astez. Kasu honetan, ez dute zalantzarik egin antolatzerako orduan. Irteerak egin ohi zituztela azaldu dute, eta aurtun, ia ziur, herritik atera gabe ibili beharko dutela esan dute.

Irati Saizar Artola Ibarra

Alurr dantza taldean eman zituene lehen pausoak Aimar Odriozola (Ibarra, 2000) dantzariak, eta dantza txapelketa ugarietan nabarmendu da. Egun, Madrilen ari da dantza garaikideko ikasketak egiten, eta leku berean, Ikearen iragarki batean hartu du parte berriki, hor ere dantzan. **Azken boladan Ibarra ez zaituzte gehiegi ikusiko, Madrilen ari zarelako ikasten.**

Gabonetan eta udan beti itzultzen naiz eta aukera dudan guztietan ere bueltatzea gustatzen zait.

Zein izan da zure ibilbidea dantza dantza munduan?

Euskal dantzak ikasten ari nintzen Alurr dantza taldean. Nire arrebak hasi ziren lehenik, eta gero, gurasoek ni ere apuntatu egin ninduten. Txikitatik dantza oso gustuko nuen, dantza klasikoan, balletean hasi nintzen muturra sartzen, eta horrela gerturatu nintzen dantza garaikidera. Eta behin, 18 urte bete eta nondik joan nahi nuen erabakitzeko momentua iristean, nahiko argi ikusi nuen dantzak asko ematen zidala eta saiakera hori egin nahi nuela.

Gaztetxotatik argi zenuen dantzaria izan nahi zenuela?

Bai, halaxe da. Egia esan ez dakit zergatia, baina hori nuen buruan, eta aurrera jarraitzea erabaki nuen. Egia esan asko disfrutatzen dut dantzarekin.

Dantza txapelketetan ere parte hartutakoa zara gazteagotan.

Bai, 9 urte ingururekin, aurreku txapelketarako dantzak lantzen hasi nintzen Iñaki Agirre irakaslearekin, eta ondoren, urte batzuk egin nituen txapelketa ezberdinetara aurkezte. Txapel batzuk lortu nituen bai. Gero, Segurako Dantza Txapelketan behin hartu dut parte, Izaro Urrestarazurekin batera.

Zehazki zer da ikasten ari zarena?

Dantza garaikideko formazio profesionala egiten ari naiz, Mariemma izeneko kontserbatorioan. Sei urteko formazioa da eta laugarren ikasturtea egiten ari naiz.

Nola egiten duzue lan kontserbatorio horretan?

Arratsaldean izaten ditugu klaseak. Normalean, 21:30ak ingurura arte egoten gara, 6-7 ordu inguruan dantzan. Normalean, dantza klasikoko balleteko klasearekin hasten gara berotu eta esnatzen joateko. Eta gero, teknika ezberdinak lantzen ditugu: graham, yoga, inprobisazioa... Tar-



ATARIA

«Berezia izan zen; Ikeako denda baten barruan grabatu genuen, gauez»

AIMAR ODRIOZOLA DANTZARIA

Dantza egiten disfrutatzen duen horietakoa da Odriozola; egun, ikasten ari da baina dantzari lotuta ikusten du etorkizuna, izan dantzari, edo baita sortzaile ere

tean, klase teorikoak ere baditugu: dantzaren historia, musika, anatomia.. Egia esan nahiko formazio osatua da.

Ikuskizunak eta prestatzen dituzue?

Bai, baina egia esan nahi baino gutxiago. Nik beti diot, txikitan, herriko dantza taldearekin emana naldi gehiago egiten nituela orain baino. Ikasturteak pasa

ahala emanaldi gehiago prestatzen ditugu, eta eskertzen da, izan ere, dantzariok horretan egiten dugu lan, eta ez bazaigu erakusten publiko aurrean dantzan nola egin, benetako momentua iristean kosta egiten da askotan.

Zer moduzkoa da Madrilgo bizimodua?

Askok gustatu zait. Irailetik aurre-

ra beste lekuren batera mugitzea pentsatzen ari naiz, eta pena emango dit, izan ere, hemen dagoen bizitza erritmoa gustatu egiten zait. Erraza da jendearekin harremana egitea. Uste dut lehenago edo beranduago itzuliko naizela.

Datorren ikasturterako, beraz, aldaketa bat pentsatzen ari zara?

Formazioan oso gustura nago, baina iruditzen zait aldaketa txiki bat ondo etorriko zaidala. Orain arte bertan, audizioak egiteko denboraldia da eta emaitza batzuen zain nago jakiteko irailan non egongo naizen. Aukera gehien, ordea, Iruñeko La Faktoria zentroan dut. Ea lortzen dutan.

Orain gutxi, Ikeako iragarki batean hartu duzu parte. Nola sortu zaizu aukera?

Madril hiri handia izanda ere, dantza munduan gabiltzanok elkar ezagutzen dugu, eta horrela castingak ateratzen direnean mundu guztiak hartzen du parte. Hasieran, ezezkoa eman nuen, lotsagatik edo, baina azkenean, bideoa bidaltzera animatu nintzen. Sorpresaz jaso nuen berria; bigarren faseko deitu ninduten, hirugarrenetarako ere bai, eta iragarkian pertsonaia bat an-

«Diziplina desberdinak nahastuta ikusten dira gaur egun; niri asko kostatzen zaidan eremua da»

tzezteko aukera izango nuela esan zidaten. Grabatu genuen iragarkia, eta hortxe nago orain, telebistan, bost segundoero nire aurpegia ikusten.

Iragarkirako dantzariak eskatzen zituzten?

Bai, beraiek argi zeukaten dantzarekin zerikusia zuen iragarki bat egin nahi zutela, eta koreografo batzuekin kontaktatu zuten. Iragarkian agertzen garen ia denak dantzariak gara.

Dantzariak eta aktoreak badeute zerikusirik?

Bai, geroz eta gehiago gainera. Gaur egun ikusten diren ikuskizunak nahasketak izaten dira maiz: antzerkia, teatro fisikoa, dantza... diziplina desberdinen nahasketa bat. Niri, pertsonalki, asko kostatzen zaidan eremua da, dantzako ikasketetan ez baitigute gehiegi erakusten aurpegiera edota ahotsa nola landu. Horrelako esperientzia txikiekin, ordea, joango naiz ikasten.

Zer moduz grabaketa eguna?

Nik tarte txiki batean hartu dut parte, eta egun batean bakarrik joan behar izan nuen grabaketa egitera. Berezia izan zen; Ikeako denda baten barruan grabatu genuen, gauez. Izan ere, egunean zehar ireki egin behar zuten denda, beraz, 22:00ak aldera joan nintzen 07:00ak ingurura arte. Sekulako argiztapena jarri zuten, eguna zela irudikatu ahal izateko. Eta eskerrak ile apaintzaileak eta makillatzaileak zeuden gu txukundu ahal izateko.

Non ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Momentuz interprete moduan, dantzari moduan ikusten dut nire burua. Hemendik urte gutxi batzuetara koreografo ezberdinekin lanean ikusten dut nire burua. Sortzaile edo koreografo moduan probatzeko gogoia ere badut. Azken aldian ideia asko ditut buruan, eta guztiak apuntatzen ari naiz, etorkizun batean landu ahal izateko.

Unai Iribar irabazle, Santikutz Klasikoan

Legazpiko proban gailenduta, lehen aldiz irabazi du Espainiako Kopan ibartarrak

Imanol Garcia Landa Ibarra

Unai Iribar txirrindulari ibartarrak bere palmaresaren zakuan beste proba bat gehitu du, aurreko larunbatean Legazpiko Santikutz Klasikoan irabaztea lortuz. «Azkenaldian pedal kolpe ona hartua dut eta horrekin batera emaitzak iristen ari dira», esan du Iribarrek. Honenbestez, Espainiako Kopako proba bat lehenengo aldiz irabazi du Iribarrek. Bere taldea, Laboral Kutxa, ez da talde finkoa Espainiako Kopan, eta inguruan egiten diren probetan parte hartzeko gonbidapena jasotzen dute.

Proba «oso gogorra» izan zela dio txirrindulari ibartarrak. Ibilbidearen azken partean aldaketa batzuk sartu zituzten antolatzaileek, aurreko urteetakoekin alderatuta, eta gogortu egin zuten.



Unai Iribar, Legazpiko probaren helmugan. ANGEL ELORTZA/GOIERRIKO HITZA

Euria eta kazkabarra ere izan zuten, eta eguraldiak ere gogortu zuen lasterketa. Azken partean gora eta behera egiten zuen ibilbideari aurre egin behar izan zioten txirrindulariek, eta azken igoeran Iribarrek ihes egin zuen eta bigarrenarekiko metro batzuen aldearekin iristea lortu zuen helmugara.

Igandean ez zuen atsedunik izan ibartarrak eta Abiatzen Torneoaren barruan sartzen den Urrakiko Igoeran parte hartu

zuen, bosgarren eginez. Emaitza horrekin Abiatzen Torneoaren sailkapen nagusiko lehen postua puntu batera du.

Aurtengo erronka berezietako bat 23 urtez azpiko Italiako Giroa izango du Iribarrek. Laboral Kutxak gonbidapena jaso zuen, eta oraindik ez bada ofizialki zabaldu bertara joango diren taldeko txirrindularien zerrenda, Iribar bertan izango da. Taldearekin parte hartuz egiten den nazioarteko proba nagusia da.



Ibon Garaiburu eta Unai Zabala, Berastegiko saioan. IRATISAIAR



Garaiburuk eta Zabalak ez dute aurrera egin

Erredakzioa Berastegi

Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketako kanporaketa jokatu zen larunbatean, Berastegin. Bertan Ibon Garaiburu berastegiarrak eta Unai Zabala leaburrarrak parte hartu zuten, baina ez zuten lortu hurrengo faserako txartelik.

Hamabi aizkolarik parte hartu zuten, eta hiruk egiten zuten au-

rerra. Lehen fasean hiru txandatan aritu ziren, bakoitzean launa aizkolarik parte hartuz. Denbora onenak lortu zituzten sei aizkolariek bigarren fase bat jokatu zuten, baina horien artean ez zeuden ez Garaiburu ezta Zabala ere. Bigarren faseko hiru azkarrenak lortu zuten aurrera egitea txapelketan: Jokin Urretabizkaia Basozabal, Xuban Kañamare V.a eta Hodei Ezpeleta.

Euskal Pilota Campusa antolatu du Behar Zanak

Erredakzioa Amasa-Villabona

Behar Zana elkarteak Euskal Pilota Campusa antolatu du. Ekainaren 28tik uztailaren 9ra egingo da, eta ordutegia 09:00etatik 13:00etara izango da.

Bi aukera izango dira campusean parte hartzeko. Batetik, Esku Pilota Campusa egingo da, teknifikazio maila landuz. Bertan 2005-2010 urte bitartean jaiotako gaztetxoek parte hartu ahalko dute. Modalitate honetan pilotan dabiltzanak sartu ahalko dira. Bestetik, Euskal Pilota Campusa deritzona egingo da, eta bertan parte hartu ahalko dute 2009-2014 urteetan jaiotakoek. Pilota jolasak egingo dira eta pilota modalitate ezberdinak ezagutuko dituzte.

Hiru teknikari eta arduradun izango ditu campusak: Asier Ar-

teaga pilotari profesionala, Iñaki Lizaso eta Jonpe Artetxe. Izen ematea maiatzaren 16an bukatuko da eta beharzanapelota@gmail.com helbidera idatziz edo 600 375 352 zenbakian egin daiteke.

Pauso bat gehiago mailari eusteko



Aulkitik

Zuriñe Iglesias

Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

Zazpi-zero. Bai, ondo irakurri duzu, zazpi eta huts irabazi genuen. Noiz irabazi genuen azkenekoz hainbesteko aldearekin? Uste dut Euskal Ligan ere ez genuela horrelako emaitzarik lortu; baten batean gertu ibiliko ginen, urte onak egin genituelako, baina ez, horrelakorik ez. Berazubi izango da? Taldeak egindako lana? Epaileengatik? Ala Iurre Taber-

nako kafearen txuteagatik? Bakoitzak egin dezala apustu.

Partida hasi baino lehen, beroketan geundela, inork espero ez zuenean, Maria Herrero agertu zen. Ez dakizuenentzat, Mariak gurekin hasi zuen denboraldia, baina Gabonetan AEBetara itzuli zen ikastera. Bada, bat-batean, isil-isilik Berazubin azaldu zen taldea animatzeko prest. Ostegun gauean Madrilera iritsi zen eta jada larunbatean gurekin zegoen. Behar bada Maria hor zegoelako irabazi genuen. Nork daki. Ongi etorri Maria, berriro ere.

Partidari buruz ezer gutxi. Irabazi beharreko partida zen, izan ere, CD Itaroa Uharte azken postuan zegoen, ia aukerarik gabe mailari eusteko. Partida ezin hobe izan zen konfiantza hartzeko eta, behintzat, bi aste gehiago jaitzierako postuetatik kanpo egoteko. Balizko hiru puntu dira.

Taldeak dena eman zuen. Bestela, galdetu iezaiozue Gariri (Ainhoa Garikanori), bi gol sartu zituen, horietako batean lurrera bota zelarik plantxan buruz errematzeko. Hori bai dela dena ematea. Gainera, partidaz hitz egiteko 28 Kanala-ko kameran aurrean jartzeko erregutu zion Imanolek (entrenatzaileak), MVPa izan zela eta. Badakizu Gari, MVPa izatearen arriskuak.

Hurrengo astean UD Logroñesen aurka jokatu du, 11:30ean, Berazubin. Joaneko partidari, sentsazio gazi-gozoz bueltatu ginen, bana berdindu genuen, azken minutuetan sartu zigutelarik berdinketaren gola. Ea sentsazio horri eutsiz, partida gogo onez hartzen dugun.

Bukatzeke, eskerrak eman nahi dizkizuet 28 Kanala-ri eta TOLOSALDEKO ATARIA-ri, espazioa, ahotsa eta ikusgarritasuna eskaintzeagatik.

BILLABONA FKE
Arratzain futbol zelaia

Publikorik ez da onartzen partiduetan

OHOREZKO JUBENIL MAILA Larunbata 8, 11:00etan
BILLABONA F.K.E. - DANENA K.E.

1. JUBENIL MAILA Larunbata 8, 15:30etan
BILLABONA F.K.E. - EUSKALDUNA S.D.

REGIONAL MAILA Larunbata 8, 17:45etan
BILLABONA F.K.E. - C.D. BASKONIA

f i t Billabona Fke



OSTEGUNA, 2021EKO MAIATZAK 6
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



BABESTUTAKO EDUKIA

Gazteluko Udalak bi lursail jarriko ditu enkantean

Bi bizitzako bi etxe eraiki ahaliko dira enkantean jarriko dituzten lursail horietan; interesa dutenek udaletxean jaso dezakete informazio guztia

Gazteluko Udalak bi lursail enkantean jarriko ditu, horietako bakoitzean bi bizitzako etxe bana eraikitzeko. Etxebizitza bakoitzak 110m2 izango ditu, bi solairutan banatuta, eta inguruan lursaila izango du.

Urteak atzera eginda jarri zuen abian udalak Erbian Errekako proiektua. Hiru etxe eraikitzeko aukera zabaldu zen garai hartan eta bakararra eraiki zen. Orain, proiektuari jarraipena emateko asmoz, beste bi etxeak eraiki nahi dituzte, guztira, lau etxebizitza. Lursailaren aldamenearan dagoen Osingoen baserria berri-itu zenean, ingurua ere urbanizatu egin zuten, beraz, errepidea du aurrealdean, bere espaloiarekin.

Etxebizitza tasatuak izango dira eta baldintza nagusia lehen

etxebizitza izatea izango da. Etxe bakoitzak bi bizitza izango ditu, ezker eta eskuin. Bakoitzak 110m2 izango ditu erabilgarri bi solairutan banatuta. Goiko solairuak balkoia izango du eta behean, etxe bueltan, lursaila izango du. Etxeak eraikiko diren lursail bakoitzak guztira 850m2 inguru ditu.

Interesa dutenek, Gazteluko udaletxera deitu dezakete, zehazki, 943 20 52 00 zenbakira. Udaletxea honako ordutegian egoten da zabalik: astelehenetan eta ostegunetan 08:00etatik 15:00etara, eta asteartean 08:00etatik 14:00etara. Edo bestela, mezu bat bidali daiteke udala@gaztelu.eus helbidera. Hilabeteko epea egongo da apuntatzeko. Izena ematen dutenekin udala bera jarriko da ha-



P1 jartzen duen lekuan eraikiko da etxe bat, eta bestea, eskuinean dagoen etxearen aldamenearan, bideari jarraikoa. ATARIA

rremanetan, eta informazio eta xehetasun guztiak emateko bilera bat deituko du ondoren.

Proiektuan parte hartzen duten familia kopuruen arabera eraikiko dira etxeak, bat ala bi. Etxe bat eraikitzeke gutxienez bi familiek eman beharko dute izena.

Etxeek egitura fisikoa eta estetikoa proiektuan zehaztutakoa mantenduko dute, eta bestelako aldaketak, etxe barruko antolamendua esaterako, bakoitzak nahi duen moduan egiteko aukera izango du. Udalak, lursaila

eta proiektua jarriko ditu interesaren duenaren eskura, eta interesatuaren kontura joango da enpresa eraikitzailearekin harremanetan jarri eta etxea eraikitzea.

INGURU ZORAGARRIA

Lasaitasun handiko eremua da Gaztelu. Ingurune zoragarri batean dago kokatuta eta mendia eta natura oso eskura ditu. Gazte eta haur asko bizi da egun, eta bizi duen herri bat da. Udalak ere horixe eskatu nahiko lieke bertan bizitzeko hautua egiten duten herritar berriei: Gazteluko

herritarrek izatea, bizitza bertan egitea, bertakoaz gozatzea.

Hamar minuturen azpitik dago Ibarra autoz eta hamar minuturen bueltan dago Tolosan ere. Esku-eskura daude beraz, bestelako zerbitzu guztiak ere.

Pandemia garai honetan, bizitzeko moduak planteatzera eramandu jende asko. Non bizi gara? Nola bizi gara? Baloreen jarri da herri txikiengan, berdez inguratuta, bizi ahal izatea, eta horixe du eskaintzeko Gazteluk ere: lasai bizi ahal izateko gune eder bat.

Gazteluko Udalak BI LURSAIL enkantean jarriko ditu, plazatik oso gertu, horietako bakoitzean BI FAMILIAKO ETXE BAT ERAIKITZEKO

943 20 52 00
Astelehena 8:00/15:00
Asteartea 8:00/14:00
Osteguna 8:00/15:00

Baldintzak: Lehen etxebizitza eta bakararra izango da. Interesdunek udaleko idazkaritzan eman behar dute izena. Izena ematen dutenei informazio bilera batera deituko zaie.